



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko azaroaren 8a

136. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Osasun Mentalaren 2012-2016 aldirako Plan Estrategikoaren ebaluazioa egin dezan gehienez ere sei hilabeteko epean, Osasun Mentalari buruzko Foru Plan berri bat aurkez dezan gehienez ere urtebeteko epean, eta abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legearen ebaluazioa egin dezan. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Sociedad Anónima Estatal Correos y Telégrafos, SAn langile finkoak sartzeko deialdia alda dezan, aldi baterako enplegua finko bihurtzearen esparruan. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat errefusatzen baititu Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua aplikatzea eta Kataluniako Gobernuak kideak behin-behinekoz espertxeratzaren gehiegizko neurria. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari berriz ere eskatzen baitio Marokoko Erresumari exiji diezaion nazioarteko erkidegoa zorrotz errespetatzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Erantzukizun Sozialerako Ekintza Plana ezartzen baitu Nafarroako gizartean duen eragina garatzeko xedez. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu azaroaren 5ean ospatzen den Ijito-hizkeraren Nazioarteko Egunaren aitopenearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako lehendakaria premiatzen baitu ekimena bere gain hartu eta kexa bat aurkez diezaion Eusko Jaurlaritzako lehendakariari, akatsak zuzendu eta neurriak har ditzan bere gobernuan, berriro ez gertatzeko Quebec-Euskadi lankidetzahitzarmenean jazotakoa. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu arbuiatzen dituela autobus geltokian LGTBI+ pertsonen oroimenez ipinita dagoen plakari eragindako kalteak. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida zela-eta 2017ko urriaren 26an eginiko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak (8. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Mentalaren 2012-2016 aldirako Plan Estrategikoaren ebaluazioa egin dezan gehienez ere sei hilabeteko epean, Osasun Mentalari buruzko Foru Plan berri bat aurkez dezan gehienez ere urtebeteko epean, eta abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legearen ebaluazioa egin dezan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2017ko azaroaren 3an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Mentalaren 2012-2016 aldirako Plan Estrategikoaren ebaluazioa egin dezan gehienez ere sei hilabeteko epean, Osasun Mentalari buruzko Foru Plan berri bat aurkez dezan gehienez ere urtebeteko epean, eta abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legearen ebaluazioa egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Osasun Mentalaren 2012-2016 aldirako Plan Estrategikoaren ebaluazioa egin dezan gehienez ere sei hilabeteko epean.

2. Ebaluazio hori eta ebidentzia zientifiko berriak oinarri, plan estrategiko berri bat egin dezan unibertsaltasunaren, ekitatearen, efizientziaren, elkartasunaren eta integrazioaren printzipioei jarraikiz.

Plan berri horrek gaixotasun mentalei aurre egiteko ikuspegi multidimentsionala eta erantzun multiprofesionala jaso behar ditu, bai eta orientazio asistentzial komunitario bat ere, behar bezalako zainketa-jarraitutasunarekin, etxe barruan

beharrezkoa den laguntzarekin eta babesarekin, instituzionalizazioaren ordezkotako prestazioekin eta zerbitzuekin, eta baitezpadako eginkizuna eman ez esku-hartze psikologiko eta psikosozialei nahiz prebentzio-lanari, pobretze terapeutikoa eta erantzun farmakologikoa tresna nagusia izatea salatuz.

Plan honek krisi-kasuetako esku-hartzeak gizatiarrago egiteko prozedurak eta suizidioaren prebentziorako arreta jarraitua bilatuko ditu.

Plan horrek bideragarri izateko behar adina baliabide eduki beharko lituzke (giza baliabideen arloko beharrak, horien behar bezalako gaikuntza, gizartearen eta gaixoen parte-hartzea, eta ikerkuntza).

3. Nafarroako Parlamentuan aurkez dezan, gehienez ere urtebeteko epean, Osasun Mentalari buruzko Foru Plan berri bat, adituen, gaixoen eta senitartekoen edo horien ordezkartza-entitateen parte-hartzearekin egina.

4. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezarri zuen Nafarroako Osasun Mentalari buruzko abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legearen ebaluazioa egin dezan, foru lege horretako bosgarren xedapen gehigarriak ezartzen duen bezala”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 6an.

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Sociedad Anónima Estatal Correos y Telégrafos, SAn langile finkoak sartzeko deialdia alda dezan, aldi baterako enplegua finko bihurtzearen esparruan.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2017ko azaroaren 3an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Sociedad Anónima Estatal Correos y Telégrafos, SAn langile finkoak sartzeko deialdia alda dezan, aldi baterako enplegua finko bihurtzearen esparruan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, SAn langile finkoak sartzeko deialdia

alda dezan aldi baterako enplegua finko bihurtzearen esparruan, eta lanpostu publikoak finko bihurtzeko prozedura bat ezar dezan, gardena eta egiaztagarria, finkatze-irizpide gisa aintzat hartuko duena kontratazio-poltsetan izena emana duten behin-behineko langileen antzintasun osoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua eta Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, SA premiatzen ditu aldi baterako enplegu-poltsetan sartzeko puntuazio-irizpideak alda ditzaten eta enpresan lanean emandako denbora osoari dagokion antzintasuna aitortu dezaten”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat errefusatu baititu Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua aplikatzea eta Kataluniako Gobernuko kideak behin-behinekoz espetxeratzearren gehiegizko neurria.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak erabat errefusatu ditu Espainiako Konstituzioaren 155. artikulua aplikatzea eta Kataluniako Gobernuko kideak, Kataluniako herritarrek legitimoki eta demokratikoki hautatu zituztenak, behin-behinekoz espetxeratzearren gehiegizko neurria. Halaber, berehala aske gelditu daitezela nahi duela dio.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du txit larria, kezkarria eta onartezina dela Espainiako PPreko Gobernuak, PSOE eta Ciudadanosen babesare-

kin, Kataluniako Gobernuan hasitako esku-hartzea, eta berresten du bere konpromisoa askatasun demokratikoekin, zeinak herritarren ondare baitira, eta ez emandako zerbait.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Estatuko botereak premiatzen ditu beren errepresio-estrategia albo batera utzi dezaitez eta elkarrizketaren nahiz errespetuaren bidea jorra dezaten –Kataluniako instituzioen ordezkarien eskubide zibil eta politikoei buruzko–, egoera hau bideratzeko”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari berriz ere eskatzen baitio Marokoko Erresumari exiji diezaion nazioarteko erkidegoa zorrotz errespetatzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari berriz ere eskatzen dio Marokoko Erresumari exiji diezaion nazioarteko erkidegoa zorrotz errespetatzeko eta beharrezkoak diren neurriak

hartzeko, ordezkari politikoek dagozkien jarduera guzti-guztiak askatasunez eta egokiro egin ahal izateko Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Erantzukizun Sozialerako Ekintza Plana ezartzen baitu Nafarroako gizartean duen eragina garatzeko xedez.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Erantzukizun Sozialerako Ekintza Plana ezartzen du Nafarroako gizartean duen eragina garatzeko xedez, betiere kontuan hartuta Erantzukizun Sozialak bere baitan hartzen duela legegintzatik harago era positiboan doan guztia, beti ere aintzat hartuta legea bera bete eta hobetzea. Hala, ulertzen da Erantzukizun Sozialak iraunkortasun irizpideak bete behar dituela gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-arloetan; eta hori lortzeko beharrezkoa da epe luzerako prozesu bat abian jartzea, jarritako helbururantz pixkanaka eramango gaituena.

2. Prozesu horretan, Nafarroako Parlamentuak identifikatu ahal izan ditu erakundeak jada erabiltzen diren praktika on batzuk; besteak beste, Kontuen Ganberak urteko auditoriak egitea, gardentasunaren ebaluaziorako kanpoko auditoriak, urtero iritzi publikoaren barometroa egitea, berariazko Berdintasun Plana ezartzea, enpresei eta profesionalei garaiz ordaintzeko baldintza sistema bat

edota energia eta ur kontsumoko adierazleak izatea.

3. Horretaz gain, Nafarroako Parlamentuak zenbait alor eta eremu detektatu ditu, eta horiek hobetu nahi ditu hurrengo 18 hilabeteetan, hala aurreikusten baitu Ekintza Planak; zehazki: interes-taldeentzako komunikabideak hobetzea, herritarren parte-hartzerako prozesu gehiago sortu eta bultzatzeko beharra, gardentasun maila ebaluatzeko metodologia egokitzea, erakundearen kode etiko bat garatzea, bateragarritasun-neurrien arloan koordinazio handiagoa, kontratatzerakoan klausula sozialak aplikatzea edota ingurumen politika bat aplikatzea.

4. Nafarroako Parlamentuak bere gain hartzen du prozesu horrekiko konpromiso tinkoa, eta prest dago erakunde honen jardueretan interesa duten interes-talde guztiei horri buruzko aldizkako informazioa emateko”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu azaroaren 5ean ospatzen den Ijito-hizkeraren Nazioarteko Egunaren aitortpenarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du azaroaren 5ean ospatzen den Ijito-hizkeraren Nazioarteko Egunaren aitortpenarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du ijito-hizkera ofizialki europar hizkuntza gisa aitortzeko eskaerarekin, Europako gainerako hizkuntzekin batera.

3. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Erregio edo gutxiengoaren hizkuntzen Europako Kartak jasotzen duen gomendioarekin, ijito-hizkuntzak aitortpena izan dezan Estatuko administrazio eta erakundeetan.

4. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du ijito-hizkuntzaren sustapena eta horrekin batera doazen ekintza guztiak estatuek finantzatzeko eskakizunarekin.

5. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du eskaera honekin, hots, ijito-hizkuntzarekin eta kulturarekin lotura duten estatuek gauzatzen dituzten ekintzen jarraipen eta kontrol zorrotza egin dezaten Europako erakundeek.

6. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du azaroaren 5a -Ijito-hizkeraren Nazioarteko Egunaherrialde guztietan aitortu eta ospatzeko nahiarekin”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako lehendakaria premiatzen baitu ekimena bere gain hartu eta kexa bat aurkez diezaion Eusko Jaurlaritzako lehendakariari, akatsak zuzendu eta neurriak har ditzan bere gobernuan, berriro ez gertatzeko Quebec-Euskadi lankidetzaren hitzarmenean jazotakoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Uxue Barkos Nafarroako lehendakaria premiatzen du ekimena bere gain hartu eta kexa bat aurkez diezaion Eusko Jaurlaritzako lehendakari Urkullu jaunari, akatsak zuzendu eta beharrezkoak diren neurriak har di-

tzan bere gobernuan, berriro ez gertatzeko Quebec-Euskadi lankidetzaren hitzarmenean jazotakoa; izan ere, Euskal Herria agertzen zen entitate bateratua balitz bezala eta ikurrina, bien ikur gisa, Nafarroaren errealitate instituzionala desitxuratuta”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu arbuiatzen dituela autobus geltokian LGTBI+ pertsonen oroimenez ipinita dagoen plakari eragindako kalteak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko azaroaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du modurik bipilenean arbuiatzen dituela autobus geltokian dagoen plakari eragindako kalteak. Plaka hori jarri zen beren sexualitatea gizarte LGTBIfobiko baten arbuioa zela-eta ezkutuan bizi behar izan zuten LGTBI+ pertsonen oroimenez.

2. Nafarroako Parlamentuak berresten du gure erkidegoan gertatzen den eraso, indarkeria edo jarrera LGTBIfobiko ororekiko arbuioa, eta lan egiteko konpromisoa hartzen du pertsona bakoitzak bere sexualitatea eta nortasuna modu oso, berdintasunezko eta askean bizi ahal izanen duen gizarte bat eraikitzeko”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida zela-eta 2017ko urriaren 26an eginiko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida zela-eta 2017ko urriaren 26an eginiko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2017ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida zela-eta 2017ko urriaren 26an eginiko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak

Lehena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– XXI. mendeko gizarte bati dagozkion bide-azpiegiturekin horni dezan Nafarroa, mantentzeko nahiz eboluziorako behar adinako arreta ematen zaien errepideekin, eta Europar Batasunaren eskakizunak bete ditzan, Nafarroako errepideen balio zenbatetsiaren % 2ko inbertsioak eginez.

– Prestazio Handiko Trenbidearen Nafarroako zatiaren eraikuntzan lan egin dezan, proiektuari bere babesa eskainiz eta hartan parte hartuz, inplikaturako agente guztiekin batera.

– Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzearen alde apustu egin dezan; kalitatezko ura eskaini dezan, eta behar adinakoa Foru Komunitateko hainbat eskualdek dituzten premiei erantzuteko.

– Nafarroako bazter guztietan argindar hornidura berma dezan, enpresen eta pertsonen funtzionamendu egokirako eska daitezkeen kalitate-eta jarraitutasun-baldintzetan, eta energia elektrikoaren garraioaren eta banaketaren arduradunei

beren sare osoaren eboluziorako eta mantentzeko inbertsioa exiji diezaien.

– Telekomunikazioetarako sarbide unibertsala eskaini diezaien Nafarroako biztanle guztiei; hartara, lurralde osoan jarriko ditu banda zabala eta estaldura mugikorra, eta konexiorako laguntza sozialak eskainiko dizkie zailtasun ekonomikoak edo prestakuntzari lotutakoak dauzkaten pertsoneri, halako moduan non sarbide teknologikoa bermatuko baitio biztanleria osoari.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure komunitateko ekoizpen-ehuna indar dezan, balio erantsi handiko enpresen eta enplegua sortzen duten proiektuen erakargune izateko, hartara 2019. urterako 20.000 lanpostu sortzeko helburua lor dezagun.

Bereziki premiatzen dugu honako sektore hauetako enpresa berrien ezarpena berma dezan: automobilgintza eta mekatronika, nekazaritzako elikagaien katea, energia berriztagarriak eta baliabideak, osasuna, turismo integrala eta industria sortzaile eta digitalak. Horretarako:

– Sei hilabeteko epean enplegu plan handinahi bat aurkeztuko da, Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren espektroan kokatua. Nafarroako eskualde guztiek dituzten beharrak jasoko ditu, eta Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan adostuko da.

– Indartu egingen da prestakuntza-enpresa binomioa, Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategian lehentasunez garatu beharrezkotzat definitzen diren sektoreen eskariak landunen, langabeen eta, batez ere, gazteen prestakuntzarako programekin lerrokatzera bideratua.

– Sinergia-eremuak bilatuko dira, ikerketak, garapenak eta berrikuntzak bat egin dezaten enprekin, ikerketa zentroekin, zentro teknologikoekin, ekintzaileekin eta Administrazio Publikoa-

rekin eta hartara ikerketaren eta berrikuntzaren bidez produktu eta zerbitzu hobeak eta lehiakorragoak sor daitezten.

– Enpresa-kontzentrazioko prozesuak babestuko dira zenbait sektore ekonomiko bultzatzeko neurri gisa, enpresen tamaina bera haien lehiakortasunerako arazo larria baita, nazioarteratzeko, berrikuntzarako edota inbertsiorako zailtasunak direla eta.

– Ekintzaileei eta enpresei arreta eta aholku emateko zerbitzu egokiak ezarriko dira, berariazko gune bat kudeatuz, Administrazioaren beharra duten enpresa eta ekintzaileentzako informazioa eskuragarria eta erabiltzen errazagoa izan dadin.

– Jarduera ekonomikorako izapide administratibo eta burokratikoak gutxituko dira, zenbaitetan enpresa eta proiektu ekintzaileentzat oztopo berririk ez baitira.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea alda dezan, errealitate berriei eta beraren ondoren onetsitako araudiari egokitzeko. Aldaketa horrek bide emanen du Nafarroan gizarte zerbitzuak finkatu, sendotu eta hobetzeko eta herritar guztiei babes osoa eta kalitatezkoa bermatzeko.

– Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea aldatzearekin batera, Gizarte Zerbitzuen Zorroa berrikusiko da, indarra duen legeriaren arabera eguneratzeko eta programa, zerbitzu eta prestazioak Nafarroako gizartearen errealitate eta premia berriei egokitzeko. Horretarako, zahartzeak, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze osoak eta espazio soziosanitarioaren garapenak planteatzen dituzten erronkak erantsiko dira, besteak beste”.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak:

– Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du ETAREN terrorismoa. Baldintzarik gabe desegiteko eskatzen dio ETA talde terroristari, eta ebatzi gabe dirauten krimenak argitzen laguntzeko.

– Nafarroako Parlamentuak terrorismoaren biktimekiko konpromisoa agertzen du, izuak eragindako kaltea ahanztiko ez dela bermatzeko.

Bosgarrena. 1978ko erregimena erantzun demokratikoak eman ezinik dabilen honetan, Foruaren Hobekuntzak, nafarrek zuzenean inoiz berretsi ez zuten esparru juridiko-politikoak, 35. urte betetzen dituen honetan, Nafarroako Parlamentuak uste du inoiz baino beharrezkoagoa dela

Nafarroaren autogobernua defendatzea. Horregatik, agintzen du:

– Nafarroaren eskubide historiko eta demokratikoen aldeko bere konpromiso irmoa berretsiko duela eta horiek defendatzeko borondatea agertuko duela edozein erasoren aurrean.

– Nafarroako Foru Komunitatearen estatus juridiko eta politikoari buruzko erabakiak hartzeko gai diren protagonista eta subjektu juridiko propioetat hartuko dituela Nafarroa eta nafarrak.

– Nafarroaren eta Estatuaren arteko harremanei alde bikotasun-baldintzetan ekiteko beharra defendatuko duela”.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Hurbileko produktuen –hala ekologikoen nola zero kilometrokoen– kontsumitzaileen kooperatibak garatzea sustatuko duen esparru juridiko-fiskala sor dezan.

– Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren (S3) barruan 4.0 industria garatzearen ondorioz lan harremanetarako sortuko den esparruak nolako eragina izanen duen eta nolako jokalekuak sortuko dituen azter dezan.

– Aurrera egin dezan 2030 Agendan hartu dituen konpromisoak eta garapen jasangarriaren arloko helburuak betetzeko:

- Egoeraren diagnostikoa bukatzea, eta tokiko edota eskualdeko irakurketak egin ahal izateko adierazlearen garapenerako oinarritzko gida definitzea.

- Parte-hartzearen eta eztabaida sozialaren arloan aurrera jarraitzea (bilerak, mintegiak, jardunaldiak eta esperientzia trukeak) garapen jasangarriaren arloko eta 2030 Agendako helburuetan sakonduz. Halaber, mota guztietako jendeari zuzendutako zabalkunde programa bat garatzea.

- Garapen jasangarrirako helburuen aplikazioarekin zerikusia duen informazioaren jarraipena egiteko eta arlo horretan esku hartzen duten entitate eta erakunde guztiei helarazteko protokoloa ezartzea, Departamentuarterako Batzordearen bidez.

- Nafarroako Lurralde Estrategia (NLE), haren helburuak, adierazleak eta lanerako estrategiak eta ildoak berrikustea eta 2030 Agendako garapen jasangarrirako helburuei egokitzea, zeharka gara daitezten politika publiko guztietan.

– Bere esku dagoen heinean, ekonomia eta enpresa arloko eragileekin dituen harremanen esparruan, gutxieneko ordainsariak handitzen lagunduko duten jarduketak eta neurriak susta ditzan, horrela Nafarroako gizartean behera egin dezan bizi proiektu pertsonal duin bat garatzearekin ia bateraezinak diren ordainsariak dituzten pertsonen ehunekoak.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hurrengo bi urteetan zerbitzu publikoen garapena eta indartzea sustatzen jarrai dezan, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte babesaren arloetako prestazio publikoak handitu eta haien kalitatea hobetzeko:

– Irakaskuntza publikoa sendotzeko plan bat taxutu eta gara dezan, honako hauek jasoko dituen: hezkuntza eskaintza handitzea, eskolatzeko eskari osoari erantzutea, eskola azpiegiturak eraiki eta hobetzea, irakasleak gehitu eta egonkortzea lan-eskaintza publiko baten bidez, murrizketak ezabatzea eta eskolatzeari buruzko araudia aldatzea ikasleak modu orekatuan banatzeko.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua indartu eta hobetu dezan, eskuragarri dauden baliabideak berrantolatuz eta erabiliz, eta lan-eskaintza publiko oparo bat eginez, plantillak egonkortuko dituen; eta oinarrizko osasun laguntza indartuz eta itzarote-zerrendak laburtuz bere baliabide propioekin.

– Mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako prestazio eta zerbitzuak sustatu eta hobetu ditzan, ezarrita dauden koordainketak murriztuz eta erabiltzailearen ekarpena haren errentaren eta ondarearen zuzeneko proportzioan zehaztuz”.

Zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak:

– Nafarroako hezkuntza sistemaren defentsaren eta Nafarroak hezkuntza arloan dituen eskumenen aldeko konpromisoa adierazten du.

– Nafarroako Foru Komunitatearen hezkuntza arloko eskumenekiko errespetua eta leialtasuna eskatzen dizkie Estatuko erakundeei, eta eskumen horiek murriztuz ditzakeen ekimenik onar ez dezatela eskatzen die.

– Aldarrikatzen du Nafarroako erakundeek apustu egin behar dutela hezkuntza sistema propioa sakondu eta garatzearen alde, gure errealitateari eta beharrei egokituia, kudeaketa publikoa ardatz nagusi duena eta herritar guztiei hezkuntzarako eskubidea bermatzen diena berdintasunezko baldintzetan.

Bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak:

– Nabarmentzen du garrantzitsua dela haurrak egungo agenda politiko eta sozialeko lehentasunen artean kokatzea.

– 2018. urtean Haurren Lege berria egiteko beharra erreibindikatzan du. Legeak honako hauek jaso beharko ditu:

- Haurren eskubideak bermatzeko esparru bat eratzea, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989an onetsitako Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak aitortzen duen ikuspegi integrala izanen duena, konbentzio horrek haurren eskubideen zatiezintasuna ezartzen baitu.

- Gainditu egin behar du abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen ikuspegi sektoriala, eta bermeak ezarri behar ditu bai eskubide zibil eta politikoez, bai eskubide ekonomiko, sozial eta kultural guztiez baliatzeko.

- Gainera, adingabeen babes eta tutoretzarako eta gizarteratzeko establezimendu publikoen kudeaketa arautzeaz gainera, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan jasotako eskubide guztiak baliatu ahal izateko aukera emanen die Nafarroako haur eta nerabe guztiei, hau da, 18 urtetik beherako pertsona guztiei, edozein dela ere haien egoera administratiboa.

- Bermatu egin beharko ditu nortasunerako eskubidea, familiararen baitan garatu eta hazteko eskubidea, ohorerako, intimitate pertsonalerako eta norberaren irudirako eskubidea, entzuna eta aditua izateko eskubidea, aisialdirako eskubidea, informaziorako eskubidea, osasunerako eta osasun arretarako eskubidea, hezkuntzarako eta hezkuntza arretarako eskubidea, gaitasun digitala garatzeko eskubidea, kulturarako eskubidea, kirolerako eskubidea, hiri eremu baterako eskubidea, haurren parte-hartze eta elkartegintzarako eskubidea eta ingurumen osasungarrirako eskubidea.

- Haur eta nerabeen gaineko inpaktuari buruzko aurreiazko txostenak egin beharra ezarri behar du Nafarroako Parlamentuak onesten dituen xedapen arauemaile guztietarako, eta erakunde publikoek haurrei buruz onartzen dituzten erregelamenduzko xedapen guztietarako.

- Haur eta nerabeen arloko politiketarako zuzendaritza-organo bat sortu beharko du, haur eta nerabeei zuzendutako politika eta plan sektorialak koordinatzeko gaitasunaz eta horretarako behar diren baliabideez hornitua.

– Erakunde guztiei dei egiten die haurren pobrezia-aren aurka eta haurrek gizarteratzearen alde borrokatzeko behar diren neurriak har ditzaten.

Hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak Erregelamenduaren 61. babesean batzorde berezi bat eratzeke konpromisoa hartzen du, sei hilabeteke epean Euskarari buruzko Foru Lege berri baterako proposamena presta dezan. Hauek izanen dira lege horren printzipio inspiratzaile edo oinarritzaileak: Nafarroako herritarren hizkuntza eskubideak betetzea, zonifikazio linguistikoa gainditzea eta euskara Nafarroa osoan ofizial bihurtzea, lurraldeko errealitate soziolinguistikoa desberdinetatik abiatuz eta haiei egokituz.

Halaber, prozesu horri parte-hartzearen bidez ekiteko borondatea adierazten du, hau da, toki erakunde interesdunen, eragile sozialen eta sindikatuen ekarpenak jasotzekoa”.

Hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

– Hurbiltasun irizpideen arabera ekoiztiko elikagaien kontsumoa susta dezan, ahal dela elikagai ekologikoa. Horretarako, kooperatibak babestuko ditu, eta jardunaldi, eztabaida, mintegi eta abarren bidez herritarrei ezagutaraziko dizkie, beste esperientzia batzuen artean, tokiko kontsumo taldeen sorrera edo “C’est qui le patron” bezalako nazioarteko ekimen arrakastatsuak, non kontsumitzaileek erabaki baitituzte esnearen prezioa eta fabrikatzeko baldintzak.

– Apustu irmoa egin dezan energia-ekoizpen barreiatu eta deszentralizatuaren alde eta banaketa-sareetan ahalik eta energia gutxien galtzearen alde. Horretarako, ordezkoko energia ekoizti behar da iturri txiki eta ugarietan, kontsumo zentroetatik ahalik eta distantzia laburren.

– Bultzada sendoa eman diezaien, legegintzaldia amaitu baino lehen, erabilera-lagapenaren araubideko bi etxebizitza-kooperatibari, gutxienez ere, horiek, esperientzia pilotu gisa, hurrengo legegintzaldirako bidea erakusten joan daitezten.

– Duela urtebeteko mandatu parlamentarioa bete dezan, zeinaren bidez onetsi baitzen Nafarroako Foru Administrazioa software libreria migra-

tzeko plan bat sor zedila eskatzea eta horretarako urtebeteko epea ezartzea.

– Arte sorkuntzaren arloko eremu autokudeatuen plan pilotuaren sorrera sustatzea. Duela urtebeteko Parlamentu honek plan horretarako aurretiazko diagnostikoa egiteko konpromisoa hartu zuen”.

Hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du erkidegoaren egoerari buruzko hurrengo eztabaidaren aurretik Etxebizitza buruzko Lege bat aurkez dezan. Lege horrek etxebizitza merkatu librean kalteberak diren pertsonen babesa bermatuko du, programa-akordioan etxebizitza gaiei buruz jasotako akordio finkatuak betez, eta apustu eginen du errenta ordaintzeko berariazko diru-laguntza ekonomikoak ematearen alde, familiek horren beharra duten bitartean, etxebizitza ordaintzeko gaitasuna egokitzeko, eta, halaber, etxebizitzarako laguntza osagarri bat ezartzearen alde, prestazio bermatu gisa, errenta bermatuaren hartzaila guztientzat.

Hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak:

– Interes orokorraren eta herritarrek dituzten eskubide sozialen aurkako erasotzat jotzen du Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreformari, 2011n onetsia, aurrekontu-politikaren erabateko lehentasun gisa inposatzen duelako zor publikoaren ordainketa; eta, beraz, hura indargabetzeko eskatzen du.

– Interes orokorraren eta herritarrek dituzten eskubide sozialen aurkako eraso deritza Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari, murrizketa zorrotzak ezartzen dizkiolako administrazio publikoaren aurrekontu-politikari, eta, beraz, hura indargabetzeko eskatzen du.

– Langileen eskubideen aurkako eraso larri eta bidegabea deritza Gobernu zentralak 2012an onetsitako lan-erreformari, eta, beraz, hura indargabetzeko eskatzen du.

– Nafarroako Parlamentuak interes orokorraren eta zerbitzu publikoaren kalitatearen aurkako eraso deritza lan-erreformari publikoak egiteko ahalmena zorrotzki mugatzen duen Estatuko oinarritzaile araudiari, eta, beraz, hura indargabetzeko eskatzen du.

